

**IBARRETXEREN PROPOSAMENA.** Euskara eta hezkuntza alorreko eragileekin ere bildu zen

## Egitasmoa ez dela zintzoa eta «totalitarioa» dela esan du UGTk

Partaide bat dator hezkuntza alorrean eskumen osoa izateko Ibarretxek planteatutakoarekin

Agentziak | GASTEIZ

Damaso Casado EAEko UGT idazkari nagusiak gogor kritikatu zuen atzo Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariaren elkarbizitzarako egitasmoa, lehendakariarekin egindako bileraren ostean. «Totalitarioa eta elektoralistatza» jo zuen. Ez dela «egokia eta zintzoa» eta «haustura» eragiten duela ere adierazi zuen.

Proposamena baztertu zuen Casadok ez diolako lehentasuna ematen ETaren aurkako borrokarari. «Beste alde batera begiratzea eta askatasun ezaren arazoari aurpegia ez ematea» egotzi zion EAEko lehendakariari. Hamaika orritako txostena eman zion Ibarretxeri. Bertan, bere egitasmoa arbuizatzeko dituen arrazoiak eta UGTren proposamenak jasotzen dira. Estatutuaren alde azaltzen da UGT eta, aldiz, autodeterminazioa eta «adostasunik gabeko» kontsulten aurka agertzen da. Burujabetza eztabaida politikotik at uztea proposatzen du.

### Euskara eta hezkuntza alorreko ordezkariekin

Aurretik Ibarretxe euskara eta hezkuntza alorreko eragileekin bildu zen. Goizean, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza eta Euskalerriaren Adiskideen Elkartarekin bildu zen ia bi orduz. Ondoren, Sarean, Partaide, Eusko Ikastola Batza eta EAEko Erlijiozko Eskolen Federazioarekin bildu zen. Guztiek egitasmoa aztertzeke konpromisoa azaldu zuten.

Bileraren amaieran, Koldo Tellitu Partaideko presidentek iragarri zuenez, ikastolek «sakonki aztertuko» dute proiektua. «Ikastolen munduak beti izango du kontuan bizi dugun gatazka konpontzeko herri honetan sortu daitekeen edozein ekimen», esan zuen.

Tellitu bat etorri zen «erabat» Ibarretxerekin, «hezkuntza alorrean eskumen osoa» izateko egindako planteamenduari dagokionez. «Euskal eskola nazionala» izateko lege baten beharra helarazi zion lehendakariari.

Sarean-eko ordezkari Iñaki Etxeberría lehendakariaren «metodologiarekin» bat etorri zen. «Metodologia hori da, gizarterako sektore guztiei hitza ematea, guk egunero erabiltzen dugu zentro publikoetan. Egun



DAVID AGUILAR / EFE  
EAEko UGTko idazkari nagusi Damaso Casado arratsaldean Juan Jose Ibarretxerekin bildu zen.

### NAFARROA

## «Nafarroarentzat mingarria» dela dio Barrenak

Pernando Barrena Nafarroako Parlamentuko Talde Mistoko bozeramailearen aburuz, Ibarretxeren egitasmoa «mingarria da Nafarroarentzat, lurralde hori kanpo uzten duelako». Proposamena Hegoafrikako apartheid-arekin alderatu zuen.

«Hiru lurraldeetatik hasi eta hiru lurraldeetan amaitzen den egitasmoa da», esan zuen Barrenak *Radio Euskadin*. «Herri bezala etorkizun eza, eta planteatzen den eredu autonomikoari erabateko muga» erakusten du proposamenak, Barrenak adierazi zuenez. Etorkizuneko eredu autonomikoaz nafarrei iritzia emateko aukera emango balitzaie, «batzuek ezusteko bat baino gehiago» jasoko luketela esan zuen.


Euskal Herrian dagoen antzeko gatazka konpontzeko modurik onena da» esan zuen.

Eusko Ikastola Batzako ordezkari Ramon Madariak, bestalde, «sakoneko txostena» dela adierazi zuen.

Xabier Kintana Euskaltzain-



DAVID AGUILAR / EFE  
Hezkuntza munduko eragileak lehendakariarekin bildu ziren unean.



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS  
Euskara alorreko ordezkariak eta Ibarretxe goizean bildu ziren.

diko idazkariak adierazi zuenez, «denok ezagutzen dugu euskarak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi duen egoera ezegonkorra, ez dituelako gure erkidegoan dituen eskubide linguistiko berak», esan zuen. Horregatik, hizkun-

tzari dagokionez, Euskaltzaindiak «kezka eta interesarekin ikusten du» lehendakariaren proiektua. Halaber, Carlos Caballero Eusko Ikaskuntzako idazkariak «positibotzat» jo zuen «une hauetan ireki den eztabaida».

### EUROPA

## Atutxarekin biltzeari uko egin dio Europako Legebiltzarreko presidentek

Agentziak | GASTEIZ

Europako Parlamentuko presidente Pat Cox-ek uko egin dio Juan Mari Atutxa Eusko Legebiltzarreko lehendakariarekin biltzeari. Atutxak elkarrizketa bat izateko eskaera egin zion Cox-i, EAEko egoera politikoaz eta Baltasar Garzon epailearen autoek jardura parlamentarioan duten eraginaz hitz egiteko.

Legebiltzarreko Lehendakariaren iturriek Efe berri agentziari jakinarazi ziotenez, Atutxak «laurupabost» gutun bidali zizkion Cox-i bilera eskatuz. Europako Parlamentuko presidentek herenegun erantzun zion, ezezkoa emanez. Bilera «zeharo nazionala den gai batean Europako Parlamentuaren eta bere presidentearen esku-sartze gisa uler daitekeela» uste du Cox-ek. Iturri horien arabera, Atutxak ez zuen bilera horretan Batasuna defendatu nahi. Dena den, Eusko Legebiltzarreko lehendakariak beste gutun bat helaraziko dio Cox-i bilera eskatuz.

### ATXILOKETA

## Domeka Gisasola espetxeratu egin du epaileak

Erredakzioa | DONOSTIA

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Epaitegi Zentraleko 4. aretoko epaile Fernando Andreuk, Domeka Gisasola gaztea Soto del Real kartzelan sartzeko agindu zuen atzo. Gisasola joan zen larunbatean atxilotu zuen Ertzaintzak Portugaleten.

Urriaren 8an Bizkaian hasitako polizi operazioaren barruan atxilotu zuten Gisasola. Operazio horretan 11 gazte atxilotu zituen Ertzaintzak, zenbait kale istiluekin lotuta.

Domeka Gisasolak ez zuen epailearen aurrean deklaratu nahi izan atzo eta ukatu egin zuen 2000an Bizkaian izandako kale istiluekin zerikusia duten hiru ekintzetan parte hartu zuenik.